



## lehenago eta orainago anarkismoaz

Gerra garaiko anarkista euskaldunak ez ditugu oso ezagunak izan. Beste hari ideologiko batzutatik zihoazen gure aurrekoak eta anarkistak, gorrietan gorrienak, pertsonaje preskriteak ziren, ez ziren gauza txarretan besterik azaltzen garai hartako historietan. Gero bai, batek halako anarkista zahar hura ezagutu zuela, zeinen jatorra eta zeinen ez dakit zer, eta noski, mitifikatu ere egin ditugu gerra garaiko anarkista hauek. Gero, aurrean duzunean, bere izatera jaisten da pertsona

bakoitza. Ba Manuel Chiapuso dugu lehenago —eta orainago— anarkista hauetako bat. Ormaiztegi zubia egitera etorri zen Ingeniero Italiano baten biloba, Donostiako Prim kalean jaio zen bera. Oso gazterik sartu CNTen eta berehala ezagutu zuen gartzela, Errepublikako «bienio negro»n hain zuzen. «Zegoen tokitik hartzeagatik hartu ninduten preso» dio; ez zen bakarra: garai hartan 18.000 inguru anarkista omen zeuden barruan eta 10.000 lagun beste alderdi eta erakundeetakoak.

«Nere unibertsitatea gartzela izan da» dio, baina Sorbonan ere ikasi ahal izan zuen gero, behin gerra amaitu eta alde egln behar izan zuenean. Nahiko liburu idatzal duen arren, hemen azkenaldian argitaratu diren bi ezagutzen dira batez ere: «Los anarquistas y la guerra en Euskadi - La comuna de San Sebastián» eta «El Gobierno Vasco y los anarquistas - Bilbao en guerra». Bi hoietan gerraren bere ikuspegia ematen du, beste batzuenetatik, derrigorrez, oso desberdina. Sarritan aipatzen du elkarrizketan zehar «gerraren trauma» eta 40 urteko atzerirratze luze horren zama ere aitortzen du. Lehengo garala, bere garala, oraingoa baina atseginagoa zalola eta hari hobeto egokitua zegoela nabari da. Hala ere, CNTen jarraltzen du.

—Diotenez, 19 urtetan sartu zinen CNTen. Baina nolaz zu, Donostiako gazte bat, garai hartan CNTen sartu?

—Behin baino gehiagotan egin didate galdera hori. Herri iberikoaren radikalizatu beharra ikusi nuen, gizarte iberikoa askozaz radikalagoa izan beharra bere konzepzio sozialean, eta noski, momentu hartan konzepzio hori pixka bat erreprezentatzen zutenak CNT eta anarkismoa ziren. Beraz, horrexegatik sartu nintzen CNTen.

—Nolako giroa zegoen orduan hemen anarkismoari buruz?

—Izugarri giro ona. Anarkismoa ez da gaur deskubritu; Espainian anarkismoa duela mende bat baino lehenagotik dator, eta noski, badu oinarri bat iberiar herrian. Beraz, badu Espainian beste edozein ideo-

**NOLAZ IZAN FEDERALISTAK MADRILEKIKO ETA ZENTRALISTAK BILBON, EUSKAL ESTATUAREN HIRIBURUA BILBON JARRIKO BALITZ? GOBERNU HORI ERE ZENTRALISTA IZANGO LITZATEKE.**

logiak ez duen «tarjeta de visita».

—Baina nik galdetzen nizun ea zer giro zegoen hemen, Donostian konkretuki. Beste indar batzuek, PNVEk adibidez, askozaz indar gehiago izango zuten noski eta...



«Nere unibertsitatea gartzela izan da».

—Bai, bai. Lehen esplikatu dut eta oraingo liburu honetan ere esaten dut. PNV eta PSOE ziren Euskal Herrian beti —bueno, mendearen hasieratik— egon diren bi indar haundiak. Eta gero PCE etorri zen hor sartzera, baina ez zuen, ezta gutxiagorik ere, beste bi alderdi hoiek zuten indarra. Gero gu gatz, noski, eta tokia baterik zegoen, baina esan dalteke Errepublikako bospasei urte hoietan eman genuen saltoa izugarria izan zela, eta hori gertakizunetan ikusi zen. Noski, oso zaila da guregan garena ikustea; eszena politikoan besteak bezala azaltzen ez garenez, ezin jakin errealtatean nondik gabiltzen eta zer egiten dugun.

—Eta garai hartan hemen zeuden anarkistak zer ziren, bertakoak ala

kanpotik etorritakoak?

—Bazeuden bertakoak baina zona honetan kanpokoak asko, Pasaiako arrantzaleak esate baterako; bi mila eta piko afiliatuko sindikato bat genuen han; Galiciako boskarren probintzia deitzen zitzaion.

**FEDERALISTA AMORRATUAK**

**Eta hemen, beharbada gure galderan errealtatean ez zuen bigarren zentzu bat aurkitu duelako edo, federalismoaz hitzegiten hasi zalgu Chiapuso:**

—Federalismoaren problema, orduan deitzen zitzaion bezala, nik honela planteiatzen dut: gu erabat federalistak gara, federalistenak, ezta? dotrinaren konzepzioak horrela

egiten bait gaitu; denok dakigu Pi y Margallek defendaturiko nazionalitateen printzipioa Proudhonen dotrina anarkistetan oinarritzen zela,

**GUK BAIONAKO PAKTOA EGITEAN MADRILGOEK —ZENTRALISTAK DEITUKO DIEGU— PAKTO HORI EZIN ZELA FIRMATU ESAN ZIGUTEN, HAUTSI EGIN BEHAR GENUELA ETABAR; GUK EZETZ ESAN GENIEN ETA HOR BEREIZI GINEN BERAINGANDIK.**

eta honek, Bakuninek bezalaxe, nazionalitateen printzipioa defendatzen zuela. Baina gure eta beste batzuen artean dagoen diferentzia hau da: batzuek federalismo externala, hau da, Madrilekikoa bakarrik defendatzen dutela. Baina guk esaten dugu, nolaz izan federalistak Madrilekiko eta gero zentralistak Bilbon, euskal estatuaren hiriburua Bilbon jarriko balitz? Orduan gobernu hori ere zentralista izango litzateke. Hori da arazoa, eta horregatik guk esaten dugu federalismo internala ere ezinbestekoa dugula, hori ez dugun bitartean, gauzak ez duela guretzat interes handirik.

Gogoratzen naiz gerra garaian Eusko Langilek publikoki planteiatu zigula arazoa, euskaldunak ginen galdetuz, eta nik esaten nuen, baxerriko ogia jan dut nik, nolaz ez naiz ba lehena bezain euskalduna izango? baina nik ez dut euskal nazionalismoaren konzeptio zentralista hori onartzen. Diferentzia hau zegoen eta guk esaten genuen, autonomia bai, baina iraultzarekin batera, uste dugu biak osatu egiten direla, eta hortik zetorren Jose Antonio Agirreren euskal gobernuaren politikarekiko gure kritika.

**—Eta nola funtzionatzen zenuten Euskal Herri barruan, egestura federala al zenuten?**

—Iparraldeko regionala zegoen eta horren barruan Santander ere bazegoen, kastellano eta asturiano tartean geratzen baitzen eta arazoa Bilbokoekin jarriz konpondu zen. Baina gerra garaian Bilbon, estatutua lortu zenean, ikusi genuen Euskal Herriko egoera politikoa zeharo aldatzen zela eta esan genuen, zergatik egon behar du Santanderrek gurekin? Eta noia erlazioak, moztuta ez, baina bai, geografiatik moz-

tuta genituen, Komite Nazionalak esaten zuenari kasorik egin gabe... Uste dut kontatua dudala iadanik nola hautsi ziren erlazioak Nazionalarekin atzerrian. Guk Baionako paktoa egitean Madrilegoek, zentralistak deituko diegu, pakto hori ezin zela egin esan ziguten, hautsi egin behar genuela etabar, guk ezetz esan genien eta hor bereizi ginen beraiengandik.

**—Baina orain badirudi berriro batzera jo dutela, ez?**

—Bai, hori dirudi, baina beste tendentzi batek esaten du ezetz. Gerraren trauma... hau da, gerran izan genuen interbentzioa benetako trauma bat izan da eta ez dago dudarik horrek ideologi aldetik ondorioak ekartzen dituela. Hori beldur-

garria da. Zein tendentziak irabaziko du?

**—Eta orain ASKATASUNA kolektiboarekiko debatea ere hor dago.**

—Hombre, ni Mikelen oso laguna naiz. Mikel nahiko denboran egon da nerekin Parlaen eta Bruselasetan... Nik esaten dudana zera da, liberatarloa denak, edozein modutara pentsatzen duela ere, lan on bat eginge duela askatasunagatik.

**—Zuk CNTen jarraitzen duzu, ezta?**

—Bai, CNTen jarraitzen dut, zeren, badakizu, Mikelek nahi duena gauza global bat egitea da, politika eta sindikalismoa CNTren barruan. Eta noski, gerra garaian ikusi zen hori ezinezkoa zela, nahi izan gabe



Chiapusoren liburutako bat.

ere CNTren barruan klase politiko bat sortzen zela, hau da, bazegoela talde bat alderdi politiko bihurtu zena. Nola tratatuko dituzu ba arazo politikoak bilera sindikaletan? Ezinezkoa zen.

**—Holek FAIkoak al ziren?**

—Noski. Euskal Gobernuarekin, Agirrearekin, izan genuen lehen problema horixe izan zen galdera. Bizkaiko «Junta de Defensa»n CNT zen hitza zuen zentral sindikatu bakarra ez zuelako ordezkari politikorik; UGT eta solidarioek berriz —hori firmatuta zegoen, eh?— beraien PS eta PNVren bitartez errepresentatuak zeudela zioten. Agirre, Euskal Gobernuarekin, CNT ezin zuela Gobernu horren barruan ametitu esan zigun, baina FAI

baietz eta FAIekoren bat izendatzen. Guk, katalanen etsenploa segiz —Generalitatea gure eskuetan zegoen—, eta Espainiako beste tokietan ere zer gertatzen zen ikusirik —CNT gauza guztietan zegoen— CNTek egon behar zuela hori esaten genuen. Nahiko eztabaida izan zen eta azkenean Agirrek, FAI joaten ez bazen Gobernura, ezer ez. Honela, oposizioan geratzen, garai hartako periodiko guztien bidez —ni Bilboakoaren zuzendari nintzen— Euskal Gobernuak egiten zuen guztia, kritikatu genuen; zerbait jakin nahi duenak gure prentsara jo dezake.

**—Baina zergatik zuen Euskal Gobernuarekiko ilskarrak, zergatik zuen oposizioa?**

—Gaineratiko Espainia guztian gertatzen ari zenaz oso diferentea

baitzen; Castro Urdialesen bertan nabarmentzen zen, itsasoan etabarretan elkartzen ziren arrantzaleak eta Laredokoek esaten zuten: «gurea kontrolatzen dugu, geuk saltzen dugu...», dena sozializatua zuten. Nola, bada, Euskal Gobernuak ez zien autonomi pixka bat gehiago eman ekonomiari, sindikatoei eta profesional erakundeetara? Ni harritzen nauena zera da, nola Partidu Sozialistak eta Partidu Komunistak parte hartu duten halako politika egiteko. Noski, haiek ere errudun dira horretan, Euskal Herrian egiten zen politika erreakzionario horretan.

**—Dena dela, 68tik aurrera edo korriente berriak sortu dira anarkismoaren barruan eta hor dago esate baterako mugimendu ekologikoekin duen lotura etabar.**



**LOS ANARQUISTAS Y LA GUERRA EN EUSKADI LA COMUNA DE SAN SEBASTIAN**

MANUEL CHIAPUSO

“Berrogeita hamar urte aurreratuak geunden”.

**NAZIONALISTEN KASUAN INOIZ EZ ZIREN HAUTSI MONARKIKOEN HARREMANAK... DON JUANEN GIZONAK GUREGANA ZETUZENEAN GURE LAGUNTZA NAHI ZUTEN, ETORTZEKO BIDE ZEN FASE BERRI HORRETARAKO.**

—Baina horiek ez dira gauza berriak. Donostian guk egiten genituen gauzak kontatzen ditudanean, jendea, frantzesek esaten duten bezala, «baba» geratzen da, aho zabalik. Gu berrogeita hamar urte aurreratuak geunden gauza askotan. Ez bakarrik ekologian baizik adibidez sexual mailan. Guk, sindikatoetako mahaietan, basektomia egin diegu seme-alaba asko zuten eta gehiago nahi ez zuten gurasoei. Eta ez ditu edonork egin ez basektomia horik, Knaus doktoreak berberak —Ogino-Knaus metodoak— egiten zituen. Nazietatik ihes egin behar izan zuen eta hemen, Donostian, lan hori egiten ihardun zuen. CNTko bostehun bikote egon ziren orduan sistema hori hartu zuten zer ondorio izaten zituen jakiteko, oraindik ez baitzekiten zientifikoki edo estadistikoki; bederatzi hilabete ondoren 496k positibo eman zuten eta 4ek negatibo, ikusten denez gehiegi emozionatu ziren lau bikote hoiak. Eta pentsa, garai hartan iritsi genuen Perlatik Pico del Lorora nahi geruena egitea hondartzan eta gero libertarioei nudismo egiten utzi ziguten Ulian, hondartza salba-

eetan. Berrogeita hamar urte aurerratuak geunden.

—**Federica Montsenyk deklarazio batzu egin zituen ba mitln batetan, homosesualak marika panda bat zirela, drogadiktoak ez daklt zer; zer iruditzen zaizu zuri hori dena?**

—Begira, hauxe pentsatzen dut, homosesualidadea, en fin, biologi-koki gaisotasun bat da, ezta? Ba dira bizioagatik joaten direnak horretara. Hortik exhibizio bat egitera... eta emakumeak, lesbianak, berdin... Arazoa pixka bat alde batera utzita konpon daiteke, batez ere ez dezatela beren izaeraren exhibiziorik egin. Izan dira politiko bikainak, zibilizazio guztietan, homosesualak zirenak, beraz, alde horretatik begiratuta, ez dut ezer homosesualen kontra, baina egin nahi duten exhibizio hori, etabar, etabar hori ia gehiegikoa iruditzen zait.

—**Baina homosesualen askapenerako erakundeak apolatuko al zentuzke?**

—Gehiegi gustatzen zalzkit emakumeak homosesualak apoiatzeko.

**GOBERNUAN PARTE  
HARTZEAGATIK MUNDU  
GUZTIKO ANARKISTAK GURE  
KONTRA JARRI ZIREN.  
GARBITASUNA GALDU  
GENUELA ESATEN ZIGUTEN  
ETA GUK ASKATASUNA  
FUSILEKIN DEFENDATU BEHAR  
DELA ESATEN GENIEN.**

—**Droga, alkohola, begetarianismoa...**

—Ni 35 urtetan hasi nintzen eda-

ten eta 40etan erretzen, orain berdin zait ez edatea ala edatea, ez erretzea, indiferentea zait, homosesuala bezala, zeharo indiferente.

Lehen bazegoen zintzotasun bat gure artean; uste dut horrek gureganatzen zuela jende asko, gure jokabide horrek, gaur ikusten denaren jokabide erabat diferentea. Gure tipo bat zegoen tokian, han tipo abstemio bat zegoen, tabernetan ibiltzen ez den horietakoa etabar. Gehienak, eh? Ez dut esan nahi edaten zuen jenderik ez zegoenik.

—**Ba orain droga, pasotismoa etabar anarkismoarekin identifikatzen dira neurri batean behintzat.**

—Bah, hori batzuek nahi dutelako da.

—**Nortzuk?**

—Etsaiek. Neri anarkista drogatu



"Lehen bazegoen zintzotasun bat gure artean... uste dut horrek gureganatzen zuela jende asko".

bat eta horrela dela esaten dida-  
nari erantzuten diot ez dituela filo-  
sofia anarkulata eta anarkletak eza-  
gutzen. Orain badaudela herrelako  
batzuek... hori gizarte medernoaren  
produkte bat da eta era batera edo  
bestera soluzionatu beharke da, bai-  
na lehen ez zegoen problema hori.

—Gaur krislea nabari da mugl-  
mendu anarkistetan.

—Gerraren traumagatik, horrek  
korronte desbordinak sortu baititu.

—Baina badirudi krisisa ez dela  
hemen bakarrik eman.

—Ez, ez, besteek ez dute gerra  
bizl izan. Duela gutxi hil da anar-  
kismo frantzeseko teerike haundi  
bat eta nere anaiari esaten zion,  
bai, berak ejerzitoaren aurka eta  
guk karguak izatearen aurka ekin  
zuela, baina hil baino lehenxeago  
esaten zigun, bai, arrazoia zenuten,  
ez dago ejerzitoa izatea beste bide-  
rik askatasuna defendatzeko.

—Eta zer irtenbide du muglmen-  
du anarkistak?

—Ba ezer ez, berari eutsi eta  
jarraitzea. Ni optimista naiz. Behin  
baino gehlagotan esan dut hau, he-  
men, Donostian, hamaika lagunekin  
hasi ginen gu 1931n.

---

### LEHEN BAZEGOEN ZINTZOTASUN BAT GURE ARTEAN... USTE DUT HORREK GUREGANATZEN ZUELA JENDE ASKO.

---

—Nola ikusten duzu oraingo egoe-  
ra Estatu Espainolean? Zer irtera  
ikusten diozu?

—Irtera zaila. Berriro ere indar  
estranjeriak hartu gaituzte, ez du-  
gu ezer piztatzen, besteen txotxon-  
giloak gara.

—Gaur egun, krisia ekonomikoaz  
kanpo, biolentziarena problema na-  
gusia dugu, atzo Arrasaten, bihar  
Jeep bat izan daiteke...

—Sozial mallako onderririk balu,  
horixe izango litzateke interesgar-  
ria. Geuk ekintza mota guztiak egin  
ditugu, baina beti, gure ekintzak  
ondorio sozialak izan ditu eta ez da  
maila politiko horretan bakarrik ge-  
ratu. Nik erantzuten dudana zera da,  
ekintza molde horren atzetik ez da-  
torrela bestea, horixe bakarrik. Ba-



"Bizitza eratu behar dugu ahalik eta hobereana".

diotsut, geuk jende asko garbitu  
dugu, baina aidi berean iraultzari  
kantua egiten genion.

**Chiapurorengan halako desilusio  
ilusionatu bat nabari da. Gaztearo-  
ko berotasunik ez, desengaino ugari  
biziltzan, dudarik gabe, eta, hala ere,  
nolabaiteko itxaropena:**

—Bizitza eratu behar dugu ahalik  
eta hobereana. Ez dago gizarte idea-  
lik eta ez paradisu-rik. Aintzineko  
gizarteek problema berberak zituz-  
ten; nik ulertzen dut hogei urtere-

kin halako gizarte batetan pentsa-  
tzea. Lehengo egunean, Santa Iba-  
belgo gazteluan, hauxe nioen: teo-  
ria baino lehenago ekintza dela.  
Teoria absolutua da, ekintza, ordea,  
erlatiboa. Problemeekin topo egiten  
duzunean, teoria guztiak dira ezta-  
baida, zailieziaz topo egiten duzula-  
ko. Teoriak ekintza ostean datoz eta  
hasieran Berba bazen, nerretzat, ha-  
sieran Ekintza zen.

TXEMA LARREA

ELIXABETE GARMENDIA